

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1994 - 95.

- ① ELHEKETA: Aste hantako solas-gaiak
1. Idazlaririk zer eraiter dauku ostaturko jendeaz?
  2. Idazlaririk zer dio haxoaz?
  3. Zuek zer diuzue kantuariez eta kantuez?

②

Piarresen Igandea.

Biharramunean .8

Haratago, hemezortzi urtheke lau edo bost muthiko gazte, zintzurak urraturik ari ziren, bi bozetan eman behar kantu bat, lau bozetan emanez, hilak ere phiztuko baitzituen heien krizkolak<sup>16</sup>...

Bainan, ez zen, ostatu hartan, behar ez bezalako ahapaldi bat aditzen, ez eta ere solas lohi bat. Ez zen hain Eskual-Iherrian berean sobera tokitan ikusten diren sehi<sup>17</sup> zantzail<sup>18</sup> eta mari-muthiko betarik. Ixil ixila harat hurat bazabiltzan, beren buruari zu erraiten a erranaritzen zioten bi zerbitzari gazte.

Erdiko mahainean eman ziren Piarres eta haren lagunak, eta berehala lothu haxoari<sup>19</sup>. Hoberik egiten ohi da bethidanik auzo-herrian, Ezpeletan. Bainan, ona bide zen Senperetkoa ere, ezen ogia busti eta busti ari ziren oro, mahain-inguruan, eta hirri onik adi ziteken kanporik beretik.

Haxoaren ondotik, bide bera hartu zuten gero sahets-hexur guri guri batzuek, eta Hettoko arno on eta berotik ari baitziren hain xuxen, alegantzia osoan ziren orai guziak

Motxoko gasna legun batetarik zerra bat hartu zuteneko, eta zangoez tronadurari<sup>20</sup> batere zarpaka arizan galbe, han zuten orai, aintzinean, kafe bat hauta, laatza<sup>21</sup> bezen beltza eta ifernuko sua bezen beroa:

"Kafe on batek oro ahantzten...!"

Deusez zen han kafe on batek ahantzarazi edo antolatu beharrik. Pattantun bera ere frango pixkorra zuten eta idorra.

Ximiniatik bezala, pafadaka<sup>22</sup> aho guzietarik heldu zen orai khea, khe xuri kurumilkatua,<sup>23</sup> gure ametsez leherra barnean daukan khea, eta, Jan Batit hasi zen bere boz ederrarekin, barne guzia dardaretan emanez:

"Iruñeko ferietan,  
Iragan San Ferminetan,  
Ehun zaldia arribatu Andaluziatik, tropan;  
Merkatu eder bat zauntan,  
Zagolarik bi lerrotan.

Bat zen pikar<sup>24</sup>ta zuria,  
Bota bannion begia:  
Andaluz batek egin daut bi untz urheren galdia;  
Eskain orduko erdia,  
"Harzak, hiria duk zaldia..."

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. Adi ziteken 32. Barnean daukan

33. Bota bannion 34. Eman daut.

31. IZAN Potentiel Imparfait

- Ni -iz- nintzen = je pouvais être
- Hi -iz- hinteken = tu pouvais être
- Zu -iz- zintezken = vous pouviez être
- Hura -iz- ziteken = il pouvait être
- Gu -iz- gintezken = nous pouvions être
- Zuek -iz- zintezketen = vous pouviez être
- Heik -iz- zitezken = ils pouvaient être

32. EDUKI = tenir. Indicatif Présent

Ni = me, moi

- Hik naukak = tu me tiens
- Zuk naukazu = vous me tenez (sing)
- Harek nauka = il me tient
- Zuek naukazu = vous me tenez
- Heiek naukate = ils me tiennent

Hura = le, la

- Nik daukat = je le tiens
- Hik daukak/n = tu le tiens
- Zuk daukazu = vous le tenez
- Harek dauka = il le tient
- Guak daukagu = nous le tenons
- Zuek daukazu = vous le tenez
- Heiek daukate = ils le tiennent